

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik
ITZULPENA¹

Zuzentaraua: 2008/21/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko martxoaren 11koa, Aseguruen eta erretiro-pentsioen komitea eratzen duen Kontseiluaren 91/675/EEE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/21/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de marzo de 2008, que modifica la Directiva 91/675/CEE del Consejo, por la que se crea un Comité de seguros y pensiones de jubilación, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» » (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 76, 2008/03/19koa*)»

2008/21/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 76/48, 2008/03/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/21/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko martxoaren 11koa,

Aseguruen eta erretiro-pentsioen komitea eratzen duen Kontseiluaren 91/675/EEE zuzentaria aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 47. artikulua 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena¹ aztertu dute,

Tratatuaren² 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Kontseiluaren 91/675/EEE Zuzentariaren³ arabera, zenbait neurri Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari⁴ jarraiki onartu behar dira. Batzordeari esleituriko betearazpen-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu erabaki horrek.
- (2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Horren bidez, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera onetsitako oinarriko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko irispide orokorreko neurriak hartzeko kontrolpeko arautze-prozedura finkatu zen.
- (3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari buruz kaleratutako

Adierazpenari⁵ jarraiki, kontrolpeko arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikuluko prozeduraren arabera hartutako indarreko egintzei aplikatu ahal izateko, egintzok egokitu egin behar dira, prozedura aplikagarrien bidez.

- (4) Zuzentariak bizi-aseguruarekin zerikusirik ez duen zuzentariaren eta bizitzako zuzentariaren, berraseguruaren eta erretiro-pentsioen alorretan aplikatu ahal izateko neurriak 1999/468/EE Erabakiaren arabera hartu behar dira. Neurriok irispide orokorrekoak direnean eta zuzentari horietan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez diren elementuez osatzea dutenenean xede, 1999/468/EE Zuzentariaren 5 bis artikuluan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.
- (5) Hortaz, bidezkoa da 91/675/EEE Zuzentaria aldatzea.
- (6) Zuzentari honen bidez 91/675/EEE Zuzentarian egin diren aldaketak teknikoak direnez eta soilik Komitearen prozedurari eragiten diotenez, ez dago zertan estatu kideek bereganatu. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horri buruzko xedapenik ezartzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

91/675/EEE Zuzentarian aldaketa hauek egin dira:

- 1) Bigarren artikulua testu honekin ordeztu da:

«*2. artikulua*

Honako artikulua hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren* 5 bis artikuluko 1. paragrafoetik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa ere errespetatuko da.

⁵ C 255 EO, 2006-10-21, 1. or.

* L 184 EO, 1999-07-17, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak —L 200 EO, 2006-07-22koak, 11. or.— aldatu zuen azkenekoak».

¹ C 161 EO, 2007-07-13, 45. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 14koa — oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

³ L 374 EO, 1991-12-31koa, 32. or. Zuzentari hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/01/EE Zuzentariak —L 79 EO, 2005-03-24koa, 9. or.— aldatu zuen azkenekoak.

⁴ L 184 EO, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak —L 200 EO, 2006-07-22koak, 11. or.— aldatu zuen.

2) 2 bis artikulua txertatu da:

3. artikulua

«2 bis artikulua

Artikulu hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa bete beharko da.

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da».

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

2. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean zuzentarau hau.

Europako Parlamentuaren
izenean
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J. LENARČIČ